Latera ta gaztelera agertzen dira, orduko izkuntzetan, gallen, nagusi, buru-jantzi, Españi'rako beñepein. Izkuntza bi otan egin da (prantxes-italianozko bana ezik) zerraldoko olerki-erakusketa ikusgarria. Begientzat urrutiegi, giza-betetik gorako illobi-zirrindan ezarriak izan dira gañerako bertso-lanak. Atakatik, ez ate nagusitik, sartu da barrura gure Euskera. Gallenenen pare ikusten du ark, ordea, amaren izkuntza, «porque en cuanto se dice contra el Bascuence apenas ay mas que bachillerias y sinrazones, acompañadas de irrisión y desprecio». Orregatik Larramendi'k, «un Golilleja mozalbete, que tenia traza de oficial de pluma» sesiorako asmatu ta beroni «con la naturalidad ó intrepidez genial de mi Pais» erasorik, latin-erderetara bere olerkia itzuli ta izkuntza jaiki oien gallurrera jaso nai du euskera, Mariana ta aren potzuan kalaka jotzen dioten igelak ixilarazi ote ditzaken.

Larramendi maixu-berriak erdira erten du. Badiduri egosten egon dala karrera-aldian, bere abotsa goratzeko denbora-zai. Atea zabaldu zaioneko erten du, ta geroko Larramendi gizondua or nun ageri dan gazte askin ontan. «Bachillerias, sinrazones, irrisión, desprecio» oiek zauritua atera da. Euskeran du zauri.

Izen-on uts ortan bakarrik ote dago, ordea, Larramendi'ren euskal arazo guzia? Ezetz esango nuke: ez duala zuritasun eta izen-on garbitze utsa arazo guzia. Atzerakoa bai erantsi, sendo alare, zauri ortan ikutuko dioten atzerritarrai; eritarrai ordea «perdonoles mucho, que algo ha de poder el paisanage; y solamente les digo que hablen mejor la Castellana y estudien con reflexion su misma Lengua» (*Discurso*, 3 orr.).

«...estudien con reflexion su misma Lengua»: euskalari zintzoaren jo-mugara begiak, ageri zaigu emen Larramendi. Bere idaz-lanen bidez ori gertatzen ari dalakoan, pozik izango da geroago Loyola ontan:

«Muchos, especialmente de los Nuestros (jesuitak), se han valido de mi trabajo para predicar con mas decencia y eficacia la palabra de Dios y para imprimir algunas cosas de devo-

cion...» (Fidel Fita, *Galería de Jesuitas Ilustres*, XXVI, página 244).

Ta ez dirudi erdaldun erdeñ-zaleen bekozko ta zear-begira utsez, andik geroko urteetara, Euskalerrri-zil Loyola paketsu bakarti artan, ain gogor lanean jardun zezakeanik; beste goragoko ta muiñagoko irrikiz baizik.

Itzuli gaitezen berriro Salamanca'ra, 1724-ko azaroaren 27, astelen, Larramendi'ren egun aundira. Goizeko amarrak dira; Sagardoy nappar jesuitak eman du il-meza, ta Lardizabal'en esanez:

«Finalizóse esta gravissima funcion, con la *Oracion Funebre*, que dixo el Rmo. P. Manuel de Larramendi, Maestro de Theologia en su Real Colegio».

ITZ-ONDORIOZ

- . Beraz, Larramendi'rena da, *Oracion Funebre* latin-itzaldia bezela, *Evs cara* olerkia ere;
- .. (iñork zekianik) liburu azaldu-berritik orain berri-berritik eza gutua *Oracion Funebre* latin-itzaldia.
- ... Ezaguna, leendikan ere, *Evs cara*;
- 1729-an, eta *El imposible vencido* liburu-baitan, argitaratua zalazkoa, ordea, gaurdaño iñoren ustetan;
- *Larramendi'ren leen-fruitu*, beronek illeta-itzaldia eman aurretixe, 1724-ko azaroaren 27 goiz-partez beñepein (bezperatik, agian),
- Salamanca'n, Clerecía deritzan elizan, Luis errege-zanaren illeta-zerraldoa jaztekotzat ezarri ta erakutsia, *berez*;
- olerki-norgeigo'ka, *giputz estudiante* batek aoz-eman, *Larramendi'ren esate-moduz*;
- Argitara: Tormes'ko Uri berean, Eugenio García de Honorato'ren moldiztegian, giputz segurar aundizki *D. Martin de Lardizabal y Elorza*'k argitara emana.

LOYOLA,
1966 - agorr. - 21.

Goikoetxea - Maiza'tar Joan,
(Iru-garate)
Euskaltzaindikoa

Larramendi'ren iztegi berria



Loiola'n Larramendi Aitaren baimaz 1965'garren urteko agorrean egin zan bileran emandako itzaldia.

Duela zenbait illabete etxe onetako Artxiboan Larramendi Aitaren iztegi berri bat arkitu zigun Mugika Aitak. Etzekien, ustez, iñortxok iztegi onen berri; zenik ere ez. Jakitera ezkeru, etzitzakean ainbat urtez argitara gabe ezkutuan egongo. Etzuen merezi, beinipein, egotea. Bere saillan eta mailan balio andiko liburua eta euskalzale ikasientzat lan ezagugarria dela baiteritzat: Larramendi berak bere bizitzan argitara zuen erdera-euskerazko beste iztegi andiaren osagarri polita; arek sortzen dituen auzi eta korapillo batzuek askatzen lagun dezaigukeana.

Iztegi onen berri iñork etzekiela esan dut. Gaur egunean bizi geran euskalzaleon artean ez, agian; baiñan lehen izandu zenbaiten artean, bai, ezaguna zen iztegi au eta ba-zekiten Loiola'ko Artxiboan gorderik zegoela. Guk ere jakin genezakean eta jakin bear gendukean, euskerazko liburu zaharren berri ematen diguten autoreak denak ezagutzen bagenitu.

Sommervogel Aita jesuitak, bere garai arte izandako jesuitak idatzi zituzten liburu eta lan guztien zerrenda osoa egin zuen «Bibliothèque de la Compagnie de Jesus» deritzan liburuan. Liburu onen laugarren iye-kian. 1535'garren xerran, Larramendi Aitak idatzi zituenak aipatzean, iztegi onetaz auxe dio: «Diccionario Vasco-español» (inachevé. A Loyola).

Sommervogel Aitak bakarrak ez, beste jesuita espainiar batek ere aipatzen digu iztegi au: Fidel Fita Aitak, Larramendi'ren *Corografía de Guipuzcoa* deritzan liburua argitara zuenak. Larramendi Aitaz mintzatzean, onela dio: «...algunos, no obstante, yacen inéditos, como el Diccionario Vasco-español, que no pudo completar... Permanece este monumento en el Archivo de Loyola» (*Biografía del autor*, pp. 6-7).

Gure zabarkeriak, beraz, eduki izan du gaurdaino argitara gabe eta zenik ere jakin gabe iztegi berri au.

Larramendi-ren iztegi berria izenpurutu dut nere gaurko itzaldi au eta lan onetan oraindaiño aipatu dudanero, «Berria» deitu dut. Ala deiturik, gauza bat baizik eztut adierazi nai izan: alegia, beste Iztegia, erdera-euskerazkoa, ezagunagoa dugula, lehenagotik ezagutua; au, berriz, esate baterako gaurdaiño ezagutzen ezkenuen ezkerero, bestearen aldean Berria dugu gure ezaguntasunari nagokiola. Baiñan eztut alde zurretik beste gabe adierazi nai izan, eta eztut nai ere, Larramendi Aitak bestea, erdera-euskerazkoa alegia, au baiño lehenago egiña zuenik. Ba-diteke, noski, ala izan, baiñan bestera ere ba-diteke.

Izan ere, galdera bat sortzen digu batpatean iztegi onek: bietatik zein osatu zuen... —osatu ez, gaizki esan dut, au ezpaita osoa—; bietatik zein egin zuen aurrenik Larramendi Aitak? denok ezagutzen dugun erdera-euskerazkoa ala gaur aditzera ematen ari natzaizuen euskera-erderazkoa?

Biak izan ditezke, izan ere; bazitekean lehendabizi oni ekin eta aagatik edo uagatik, eztakit zergatik, bukatu gabe utzi —esate baterako, erdera-euskerazkoa bearragoa eta onuragarriagoa izango zela uste izan zezakealako—, eta olako bati, erdera-euskerazkoari, gero ekin eta bukatu izatea, lehendabizikoa osatu gabe bazterrera utziaz. Baiñan izan zitekean beste au ere; erdera-euskerazkoa osatua eta argitara emana ikusi zuenean, aren osagarri bezela, gero beste bat alde-erantzira egin nai izatea.

Zein da, ortaz, bietan zaharra eta zein berria?

Adi ditzagun Larramendi Aitak berak, argitara zuen erdera-euskerazkoari ipiñi zion Itzaurrean gai oni buruz esaten dizkigun itzak, argitasunik pixkat eman dezaiguketan-edo. Onela dio 43^{garren} orrialdean, *Del Diccionario del Bascuence* deritzan atalean:

«En fin, para no embidiar a otras Lenguas alguno de sus ornamentos, y curiosidades, logra oy el Bascuence tener su Diccionario, que es el que aora se da a la estampa. Mi primer pensamiento fue poner primero la voz Bascongada, y después la correspondiente castellana, y Latina; pues así se llamaría al parecer, con más oportunidad Diccionario del Bascuence. Pero mude la idea, atendiendo a la utilidad deste genero de obras. Poniendo primero las voces Bascongadas, vendria a ser el Diccionario de muy corta, o ninguna utilidad; porque la mira principal es, que assi los Naturales, como los Extraños, puedan, si quieren, aprender el Bascuence, para cuyo fin ayudaría muy poco, el que en el Diccionario precediessen las voces Bascongadas, y se siguiessen las

Castellanas. Los que oy pueden aprovecharse del Diccionario aca en España, saben el Castellano, y querran instruirse en el Bascuence, buscando en esta Lengua las voces, que corresponden a las Castellanas que ya saben, y no las pueden buscar con orden, y facilmente, si no ven primero colocadas por su orden las voces Castellanas. En Bascuence no ay mas Libros, que los pocos de que he hecho mencion arriba; para entenderlos, y traducirlos, serviria el Diccionario, en que estuviessen primero las voces del Bascuence. Es utilidad, pero corta por aora, y seria grande, quando huviesse mucho escrito en nuestra Lengua, y en cada uno de sus Dialectos».

Gero beste arrazoi bat ematen du —eztaukat emen zer aipaturik—, eta azkenean onela dio:

«Por esta razon he observado este methodo en el Diccionario, esperando, que otro curioso, que quisiesse trabajar algo, podra sin mucha dificultad disponer el Diccionario, en que se pongan antes las voces del Bascuence, y despues las del Romance; pues, leyendolas en este Diccionario, y teniendo dispuestos los pliegos, y quadernos necessarios, las pueden ir escribiendo en la letra, y combinacion que les toca».

Lenengo asmoa, beraz, Larramendi Aitak onako au izan zuen: euskera-erderazko Iztegia egin. Asmo utsa izan al zuen ala lanari ere ekin zion? Ekin bazion, gaur aipatzen ari geran iztegi au ote da asialdi artan artu zuen lanaren fruitua? Egiten asi eta osatu gabe bertan behera utzi ote zuen iztegi au, asmoa aldatu zuelako? Baditeke.

Baiñan ar itzazute ere gogoan Larramendi'k berak, irakurri dizuedan pasartearen azkenaldean esan dizkigun beste itz aiek:

«He observado este methodo... esperando, que otro curioso... podra sin mucha dificultad disponer el Diccionario, en que se pongan antes las voces del Bascuence».

Burutu zuen, bai, burutu, beste euskaldun batek Larramendi'k nai zuen lan ori; baiñan oso berandu, Larramendi il eta andik eun urtera-edo. Aizkibel'ek alde-erantzira ipiñita, atzekoz aurre aldatuta eman zigun Larramendi'ren iztegi andia.

Larramendi'k, ordea, etzuen, bizi izan zen artean, lan ori egiten iñor ikusi. Urteak aurrera zijoazkion eta lan ura beste iñork burutzen etzuela ikusirik, ez al deritzazute azkeneko urteetan, Larramendi zen bezelako gizonari esna zekiokela, lan ura burutzen berbera asteko as-

moa eta gogoa? Esnatu ere, esnatu zitzaiola uste dut asmo ori, eta gaur adierazten ari natzaizuen iztegi au, berak azkeneko urteetan osatu nai izan zuen euskera-erderazko iztegia dela deritzat.

Ona zergatik: lehen erdizka eta murriztuak irakurri dizkizuet Fita Aitaren itzak. Osoak, berak argitara emandako *Corografía de Guipúzcoa*-n Larramendi'ri buruz idatzi zituen lerroetan dakartzienak auek dira:

«Algunos, no obstante, yacen inéditos como el Diccionario Vasco-Español, que no pudo completar prevenido por la enfermedad que le llevó al sepulcro. Permanece este monumento en el Archivo de Loyola».

Fita'k dionez, beraz, il aurreko egunetan ari zen Larramendi Aita iztegi au egiten eta illobiratu zuen gaitzak eragotzi zion osorik uztea.

Lehen esana, beraz: beste iñork lan artan arretarik artzen etzuela ikusi eta bera asi zitzaigun, Larramendi Aita. leengo iztegi zaharra atzekoz-aurre ematen.

* * *

Mintza gaitezen jadanik iztegi az beraz, zeatzago eta meatzago ikas dezazuten zenbateraiñokoa den, nola egiña dagoen, zenolako gaitasunak eta bereizitasunak dituen, eta abar.

Berrogei ta amasei orri besterik eztu; eun ta amabi orrialde, beraz. Letra txukunez idatzia dago, Mendiburu'k bezain polita eztu letra, baiño. Ez bekigu, ordea, ahaztu Larramendi Aita, iztegi au egiten aritu zenean, irurogei eta amar, irurogei eta amabost urteko agure zaharra zela. Kartoezko azal sendo batez bildurik dagoz orriak. Liburuak 33 zentimetro ditu luze laburrean eta 21 zentimetro estu-zabalean. Berak bere eskuz idatzia da eta iñork gai onetan zalantzarik izan etzezan, naiz azalean naiz lenengo orrian aditzera ematen zaigu. Azalak onela dio: «R. P. Manuel de Larramendi, s. j. Diccionario Basco-Castellano incompleto. Es el original autógrafo». Azalak dakartzien itz auek ez tirudite Larramendi'renak, beste norbaitek ipiñiak baizik. Lenengo orrian, berriz, azpiko aldean itz auek agertzen dira: «Original del R. P. Larramendi».

Osatu gabea da, beraz, iztegia. Lanean ari zelarik iritxi zitzaion, agian, azken ordua; gaixotu zenean zegoen artantxe utzi eta aldegin zigun.

Orrialde bakoitzean itzak iru zerrendetan sailkaturik dagoz goian-behean.

Zenbait orrialdetan osoro bete gabe agertzen dira zerrendak, aspiko aldean bete gabeko utsunea, andixeagoa, txikixeagoa, dutela. Beste iztegi zaharretik urrenez-urren itzak artu-ala idazten zituen, iñolaz, berri onetan eta, jakiña, euskeraz zegokien letrapean ipintzen zituen. Orregatik eztira agertzen, agertu ere, beti itzak izkien-jarraiak eskatzen duen ordena zorrotzean, erdera-euskerazko iztegian agertu-ala zetozkion giñoan baizik. Batetik bestera atzekoz-aurre aldatu baizik etzuen egin; geroagoko lana bearko zuen izan, emen artutakoak zuzendu, ordenatu eta urrenez-urren ipiñi. Baiñan ortarako astirik etzuen izan.

Ze letraraiño iritxi zen erdera-euskerazko iztegian? Alegia, noraiño itzak zituen aldatuak iztegi zaharretik berri onetara eta nundik ezkerozkoak falta zitzaion berrira aldatzea?

Zaila da esaten. Banan-banan aztertu bearko lirake itzak, erderazkoak noski, eta ortik atera, ea zer izkitan eten bear izan zuen bere lana. Dana dala, erdera-euskerazkoan aurreneko bospasei izkien azpian agertzen diren euskerazko itzak baizik etzituela iztegi berri onetara aldatu esango nuke.

Muga bat jar dezakedala uste dut. Ar dezagun, esate baterako, erdera-euskerazko iztegitik *m*-gaz asten den erderazko itz bat; «morir», adibidez. Orren ordezkoa euskeraz *il* da; ba, *il* ezta ageri iztegi berri onetan. *Illerazo*, *illaraci*, *illerazopena* eta abar *il*-etik erakarriak, berriz, bai, auek badakartzi; baiñan oiek erdera-euskerazko iztegian «amortiguar, amortiguamiento» esan nai dutela dion ezkerero, *A* izkian arkitu zituen.

Beste adibide bat: «mano» erderaz *eskua* da euskeraz; ba, *eskua* ere eztakar iztegi onetan. Itz onetatik erakarriak diren beste batzuek, bai, badakartzi; esate baterako, *escumaquilla*, *escumuñac*, *escubarea*, *escuera* eta abar; baiñan oiek erderaz «báculo, besamanos, bielta, compás» omen diren ezkerero, *B* eta *C* izkietatik artuak zituen.

Beste orrenbeste esan dezaket *meza-z*, erderaz «misa». *Meza* ere eztakar iztegi onek. Berebat *beldurra* naiz *bildurra*, erderaz «miedo»; ez bata ez bestea eztira ageri iztegi onetan.

Beraz okerrrik gabe esan dezakegula uste dut, *M* letraraiño beinipein etzela iritxi erdera-euskerazko iztegian, eta ortik aurrerakoak, beintzat —atzeragokoak ere ez, apika, denak—, aldatzeko astirik izan gabe atzi zuela erioak Larramendi Aita.

Onenbestez esana dago, ortaz, beste iztegi zaharrak baiño askoz itz gutxiago demaigula berri onek. Danera zortzi-bederatzi milla euskerazko itz dituela esango nuke, gutxi gora-behera. Nik idazkailluz berreun eta

irurogei orrialde bete ditut, orrialde bakoitzean ogeitamar itz, ortxe-ortxe, artzen nituela. Ortik atera kontuak.

Zaharrear agertzen ezten itz berririk ba ote den beste iztegi berri onetan jakin naiko-du norbaitek. Zer itz berri?, galdegingo nuke nik. Zer itz berriz ari zera? Larramendi'k berak asmatu omen zituen aietaz —eta batzuek asmatu zituen, noski, ezpadakigu ere beti zeintzuk bai eta zeintzuk ez—, bere iztegi zaharrear agertzen diren itz bitxi aietaz ari bazatzazkit, oietako berri gutxi eta bearbada bat ere ez tala ageri beste onetan esan bearrean nauzu. Asmatu bear zituela zeritzan denak, zaharrear eman zizkigun eta andik artu zituen ona, artu bear zituela zeri-tzanak, beste berririk tajutzen ibilli gabe.

Berria, alegia, berak asmatua naiz erriari entzuna naiz beste libururen batetik artua izan, beste iztegi andian agertzen eztenik ba al den ala ez emen galdegiten badidazu, eztaikit zer erantzun; zuzen eta ziur erantzuteko iztegi zaharra ia buruz jakin eta osorq ezagutu bear bailitzake, eta berri onetako itzak banan-banan artu eta zaharrear datozen ala ez astiro begiratu. Ostera zera gerta diteke: alegia, zaharrear zuk billatu nai izan duzun erderazko itzean ez tator euskerazko itz bat eta ortik uste dezakezu iztegi osoan ere ez tatorrela; baiñan sarri gertatu zait, erderazko itz batean arkitu ez tudana, aren kideko edo antzeko beste erdal-itze batean arkitu.

Norbaitek esan dezaidake: Aizkibel'ek atzekoz-aurre eman zigula esan ez tuzu, ba, Larramendi'ren iztegi zaharra? Aizkibel'en orretan begiratu besterik eztaukazu.

Bai, bide errezagoa litzake ori eta neronek ere bide ori erabilli dut, onelako edo alako itza Larramendi'k zaharrear zekarren ala ez ikasteko. Nik nerez Larramendi'ren iztegi zaharrear arkitu ezin nituen itzak eta etzetozela uste nituenak, Aizkibel'en bitartez arkitu eta ikasi dut bazetozela eta antxe zegozela, nik besterik uste izan arren.

Baiñan —baiñanen bat gabeko gauzarik ezpaita mundu onetan—, bide ori ere ezta erabat segurua. Zergatik eztaikit, baiñan Aizkibel'ek ez zituen artu Larramendi'k zaharrear dakartzien itzak den-denak. Utsen bat arkitu diot; esate baterako *nozguea*, *nozguetu*, *nozgueitza* ezta kartzi Aizkibel'ek berean eta Larramendi'k, berriz, bai bere zaharrear.

Orregatik enintzake biribil esaten ausartuko, iztegi onetan bestean ageri ezten itz berririk badakarrenik. Ba baititeke, nik arkitu ez izan arren eta Aizkibel'ek bere iztegian ez aipatu arren, zokoren batean ezkutaturik egon zaharrear. Lan andia da ori eta zeatzago aztertu bearko dira zaharra eta berria.

Dana dala, gauza bat bederen esan dezaket: nik zaharrear arkitu eztudan eta Aizkibel'ek berean eztakarren bakarren bat badela berri onetan. Esate baterako, *izanac*. Itz au badakar, noski, Larramendi'k iztegi andian: «avidos, y por aver, *izanac, ta izanquizunac*», dio. Baiñan iztegi berri onetan beste adiera batez aipatzen du eta adiera onetaz Aizkibel'ek ere eztakar berean. *Izanac*, «parejas en el mus» omen da.

Lehen *nozguea, nozguetu, nozgueitza* aipatu dizkizuet. Iru itz oriek badakartzi Larramendi'k; Aizkibel'ek, ez, ordea, berean. Beste au, berriz, *nozgueitzatu*, alegia, zaharrear eztakar Larramendi'k; berrian bai, ordea.

Izango dira, bearbada, beste batzuek ere; eztut ukatzen. Lehen esana; banan-banan begiratu bearko litzake, ea berri onetan dakartzienak denak zaharrear ere dagozen ala ez. Nik eztut astirik izan lan ori osorik burutzeko.

Beste itz batzuek, berri-berriak ez izan arren, iztegi zaharrear agertzen direnen aldakiak dira. Alegia, batean era batera eta beste onetan bestera idatzirik edo emanik dagoz. Esate baterako, zaharrear *egoquico lizaque, ansi lizateque, ezlizateque* dakartzi «importaría, no importaría» esateko; emen, berriz, *que-rik gabe antsi lizate, ezlizate antsi* ipiñi du.

Zaharrear «acodo, cogollo, que separa de la planta principal» esateko *jamentuá* dakar eta ori bera artu zion Aizkibel'ek; emen, berriz, *gumentua* ipintzen du.

Eta berean *gozainá, gozaiñá andia* dakartzi zaharrear «aorta», «la arteria magna» euskeraz esateko, *-a* organikoa itzari datxikola; berrian, orden, *gozain andia* dakar.

Goautá eta *goatu* «aullido», «aullar» omen dira; ala dio zaharrear eta beste bi auek *goaúa* eta *goautatu* eztitu aipatzen; berrian, bai, berriz, laurak.

Hirgaña eta *hirgancia* antxe ageri dira iztegi zaharrear «cilindro» eta «cilíndrico» esateko; Aizkibel'ek, ordea, eztizkio berean artu; iztegi berri onetan biak ageri dira, baiñan zaharreko *hirgancia*-ren orde, emen *hirgantia* ageri da. Zaharreko *hirgancia* oker bat zen, iñolaz.

«Carámbaro» esateko zaharrear dakarren *urchiqueá* emen *urchequia* idatzi du.

Eta abar, eta abar. Jarrai nindeke, baiñan aipatuak aski direla deritzat esanaren erakusgarri. Beste noiz edo noiz zabalduko eta osatuko dut neronek, edo beste norbaitek, gai au.

Uki dezagun orain, —ukitu baizik ez, ezpainuke itzaldi au geiegi luzatu eta aspergarri izan nai—, beste puntua. Bat baiño geiago uki nezake; esate baterako, ze itzetan eta noiz ipintzen duen azentua Larramendi'k iztegi onetan, ze ortografia erabiltzen duen eta abar. Baiñan labor izan nadin, puntu oiek aldebat utzi eta beste bat azalduko dizuet: gaur egunean ainbat istillu eta eztabaida sortu duen eta sortzen duen zorioneko *h*-ari buruzkoa.

Larramendi'ren iritzia gai oni buruz erdera-euskerazkoak asieran duen itzaurretik ezagu dezakegu. Nafarroako eta Lapurdiko euskalkiaz mintzatzean, onela dio: «(este dialecto)... en lo escrito es embarazoso, porque lo 1.º aspiran mucho las voces, y en otras, que no aspiran, ponen sin necesidad la h». Bigarrenak eztu zer ikusirik, orain jorratzen ari geran gaiarekin. Gero onela darraio: «lo 3.º por guardar, a su parecer, demasiada puntualidad, desfiguran en lo escrito lo pronunciado. Assí dicen, «haiñ handia» lo que nosotros «ain andia»; «hambat dohaiñ», y nosotros «ambat doaiñ»; «guehiago nahi bear dugu», y nosotros «gueyago nai bear degu».

Aurreraxeago, euskera erraza dela frogatzen ari delarik, onela dio: «La hache, o aspiración, está muy en uso en Labort, Baxa Navarra y Zuberoa, assí en lo hablado como en lo escrito, pero no en los dialectos de España, como ya lo tengo dicho; y aunque no se aspirasse la hache me inclinara a que se escribiesen con ella muchas voces como en Francia, para distinción del significado. Pongo exemplo, «ori ori ori», parece una voz, y son tres distintas, que significa «toma eso amarillo» y se debieran distinguir assí: «óri ori hori», porque «óri» toma, tiene el acento en la ó, y decimos también «orizú»; «ori», amarillo, en la í; y «hori», esso, también en la i, pero tuviera distinción en la H con que escriben y pronuncian essa voz en Labort, aunque nunca es gutural esta aspiración como lo es en Andalucía. Lo mismo digo de «hurá», aquel; «urá», agua; «haria», carnero; «aria», hilo; «haur», este, que nosotros decimos «au», y «aur, aurra», niño; y assí de otras muchas voces. Pero en esto tampoco me desagrada la indiferencia, y assí escribiré unas veces de un modo, y otras veces de otro».

Larramendi mintzatu zaigu onaiño. Aren iritzia garbi dago: alde batera, naasketa sor dezakeala; bestalde, berriz, obe litzakeala aldiz bein itz batzuek bereizteko; azkenik, berdin omen zaiola eta batzuetan erabiliko eta beste batzuetan ezteuela erabiliko.

Zer egin du iztegi berri onetan? Onek itzaurretik eztu; izango zukean bearbada, baiña, bukatu izan balu osoro. Beraz, azken urteetan

iritzi berekoa zen ala ez jakiteko, bide bat baizik ez tugu: iztegi berrian nola jokatu den ikusi.

Alfabetoak eskatzen duen eran, *G*'ren ondoren ipintzen ditu *h*-gaz asten diren itzak. Ontzat eman du, beraz, itzen asieran letra ori. Eun itz dakar, gutxi gora-behera, sail onetan: *hedea*, *hobena*, *higuindu*, *hitza*, *hildoa*, *hipuya*, *humea* eta abar.

Itz-erdian ere idazten du aldiz bein *h*; *A* ta gero *h*-rekin asten diren itzak amabi baizik ez titu: *ahurra*, *ahalquea*, *ahala*, *ahanci* eta beste bakarren bat.

Auhena eta *auhendu* ere *h*-gaz idatzi ditu *au*-ren ondoren.

Bea, *bean* eta *bear* eta onen itz alkartuak *h*-rik gabe dakartzi. Berbat *biotza*.

Bahatzatu, berriz, «acribar» *a* bien arten *h* duela ipiñi du. *Buhurdia*, «almohada» era berean.

Iruzpalau itz ematen dizkigu asierako bi *o*-en tartean *h* jarriaz. Itz batzuek bi eratara dakartzi: *h*-gaz eta *h*-rik gabe; esate baterako, *hildoa* eta *ildoa*, *zuhurtu* eta *zurtu*.

Danera, beraz, eun ta ogeitamar itzetan erabiltzen du *h*, gutxi gora-behera.

* * *

Onenbestez esangarrienak aipatu eta iztegiaren berri larrienak eman dizkizuedalakoan nago. Buka dezadan ortaz, itzaldi au: euskaldun xeearentzat eta jakinzale eztenarentzat interesik gabea izan baditeke ere iztegi au, ikasientzat eta euskeraren zertzelada eta xeetasun guztiak balio andiko direnentzat ezta, iñolaz, interesik gabea.

ALTUNA'tar PATXI'k, S. J.

P O R T A D A

33 cms. x 21 cms.

R. P. Manuel de Larramendi, S. J.

Diccionario Vasco-Castellano

Incompleto.

(Es el original autógrafo)

AB

- A**, ac, articul. aquel, aquella.
Aba, aboa, auba, aoa, aüa, boca.
Aboatua, chistar (1).
Abadea, abad, clérigo.
Abadesea, abadesa.
Abarca, abarca.
Aberea, animal, bruto, bestia.
Aberetresna, aparejo de bestia.
Aberequeria, brutalidad.
Aberetu, hacerse bruto.
Abecea, abece, alfabeto.
Aberia, gasto, aberia.
Abollatu, abollar.
Abodlatu, acanalar.
Abendua, adviento, Diciembre.
Aboztua, abuztua, agosto.
Abarca ezpartuzcoac, alborgas, esparteñas.
Aacaldu, respirar, anhelar.
Aacala, anhelito, respiración.
Abia, icus. cabia.
Abarraquitu, hacer añicos, pedazos.
Abaldecoac, asnas del tejado, costaneras.
Abilanteza, abilantéz.
Abegorra, azomamiento, azuzamiento, precipitación, alboroto.
Abegortu, azomar, azuzar al perro, alborotar, -se.
Abarra, barda; **abarreztu**, bardar.
Abredaria, brevaje.
Abecaria, cabalgadura.
Abeariz, a caballo.
Abodia, canal, conducto, canales en la arquitectura.
Abechalquia, capitel de colona.
Abaritza, carrasco.
Abarizqueta, carrascal.
Abarrá, carrasco, chaparra, chamiza.
Abarrateguia, carrascal, chaparral.
Aballa, honda; **aballaria**, hondero.
Aballirpítza, chasco, extremo del látigo, de la honda.
Abarte, claro, intercolumnio.
Abea, colona, pilar.
Abia, cabia, nido.
Abia, abiatu, empezar.
Abiadura, principio, arranque.

(1) Original del Rvdo. P. Larramendi, S. J.

AC

- Acabatu**, acabar.
Acaballa, acabamiento, fin, postre.
Acabantza, lo mismo.
Acertadu, acontecer, suceder.
Acerola, acerola, fruta y árbol.
Achaquiatu, achacar, acumular.
Achaquia, excusa, pretexto.
Acordatu, acordarse.
Acastu, adentellar una pared, quebrar borde o labio a alguna cosa.
Acopilatzallea, agresor.
Achurquintza, agricultura.
Aculloa, aculloa, aguijón, aguijada.
Achurtegula, aisurtegula, aprisco, cubierto para corderos, cabritos, etc.
Acitu magalac, gonac, arregazar faldas, sayas, arremangar.
Sudur acitua, nariz remangada.
Acopilatu, acometer, arremeter.
Arrendatu, arrendar.
- Arrendamiento**, **arrendaera**, **arrendamentua**.
Acara, nardo.
Acitraya, axedrea, hierba.
Achurra, azada, azadón.
Achurtu, cavar.
Achurlaria, labrador, cavador.
Acha, peña, peñasco.
Achaga, breñas, peñascos.
Acachada, cachada.
Acacharroa, cacharro.
Acatsa, pedacito que se quiebra, se quita, cala de melón, mordisco.
Acastu, dejar algo assi quebrado, mordido, calado, adentellado.
Acharloa, camedros, hierba.
Achuria, cordero.
Aci, crecer, aumentarse.
Aciera, acitea, crecimiento.
Acholacabetu, descuidar, no dársele nada.

AD

- Adacaya**, rama menor.
Adarra, cuerno, rama.
Adarturunta, corneta.
Adartsua, **adartua**, **adarduna**, cornudo, ramoso.
Adarcaria, corneador.
Adarcada, cornada, golpe de rama, de cuerno.
Adarcatu, cornear.
Adarguea, **adarbaguea**, descornado, sin ramas.
Adarguetu, **adarbagnetu**, descornar, quitar las ramas.
Adarbacocha, Rhinocerote.
Adala, en el navío, adala.
- Adarga**, **adarguea**, **adarga**, escudo antiguo.
Adarme, **adarme**.
Adarbe, **adarbe**.
Ademana, **ademán**.
Adreztu, aderezar, arreglar.
Aderazquiña, **adrazquiña**, aderezo.
Adiuntza, ocasión, tiempo.
Adibac, **adivas**, esquinencia de bestias.
Adobatu, remendar.
Aduana, **adua**.
Adleragoya, alegoria.
Adleragoitu, alegorizar.

- Adlerazo**, dar a entender, aludir, informar, avisar.
Adiera, alusion, significacion.
Adleratsua, alusivo, significativo.
Adisquildea, amigo.
Adisquidetu, amistar, hacerse amigos.
Adisquidegarria, amigable.
Adisquidetasuna, **adisquوندهa**, **adisquideera**, amistad.
Aditzea, audiencia, acto de oír.
Adiunde, audiencia que dan los Príncipes y el Tribunal.
- Adiundetegula**, audiencia, lugar.
Aditzallea, auditor, oyente.
Adiacaria, autillo, ave nocturna, planeidera, llorona.
Adaroa, barredero de horno.
Adiflona, mediano, entre bueno y malo.
Adatsa, cabellera, pelo largo, trenza.
Adina, edad.
Adinquildea, coetaneo.
Adinanditu, **adintsutu**, hacerse anciano.
Aduste, concebir, pensar, entender.

AF

- Afalondoan**, sobre cena.
Afruntua, afrenta.
Afaria, cena.
- Afalteguia**, cenaculo, cenador.
Afaldu, cenar.
Afarusla, colación de ayuno.

AG

- Aga**, agaya, palo, baston, grueso, garrote.
Agapurua, clava, porra.
Agaaca, **agaica**, a palos, garrotazos.
Agatea, cancilla, puerta de palos.
Agaatu, **agaltu**, **agaacatu**, apalear.
Aguña, muela.
Aguina, tejo, arbol.
Aguinaga, **aguineta**, tejedal.
Aguindu, ofrecer, mandar.
Aguindea, **aguindua**, ofrecimiento, mandato, manda.
Aguintza, lo mismo.
Aguinqueta, lo mismo.
Agua, apariencia, parecer, semblante de una cosa.
Aguian bai, puede ser que sí, sí al parecer.
- Aguirria**, **aguirindea**, **aguerpena**, aparecimiento.
Aguirre, semblante requemado.
Aguiiri, **agueri**, **aguerri**, parecer, aparecer.
Aguertu, aparecer.
Aguirian, **aguerrian**, al descubierto.
Agur, adios, Dios te guarde, te salve.
Agur Maria, Ave María.
Agurreguin, saludar.
Agurrac, saludos, salutaciones.
Agurea, hombre viejo.
Aguretu, hacerse viejo.
Aguretasuna, vejez, senectud.
Agurequeria, chochera de hombre.
Agua, apariencia, semblante, exterior, parecer.

Agulan , acaso, por ventura, al pa- recer.	Agaaria , agalaria, agalcaria, apalea- dor.
Aganatu , icus. arganatu.	Agaatu , agaacatu, agaitu, agaicatu, apalear.
Agorrilla , agosto.	Aguiztu , arreciar.
Agoantatu , aguantar.	
Aguinaldo , aguinaldo.	

AG

Aguirá , riña, reprehensión.	Agripecoa , lo que es cierto.
Aguiracaria , pendenciero, balan- dron.	Aguintaria , superior, comendador.
Aguiracatu , reprehender, baladro- near.	Aguerquidatu , comparecer, constar.
Agripea , certeza, certificacion.	Aguerquida , comparicion.
Agripetu , certificar, hacer patente, claro, evidente.	Agaz , con, con aquel.
	Aguerquildea , conspicuo.
	Agurio , decrepito.
	Aguriogua , decrepitud.

AH

Ahorratu , ahorrar.	Aheria , cancion.
Ahurra , la mano casi cerrada y tam- bién puño cerrado.	Ahacoa , cognacion.
Ahalea , anade.	Ahala , icus. ala, ahal, al.
Ahalca , ahalquea, verguenza.	Ahanci , olvidar.
Ahalcatu , ahalquetu, avergonzar, -se.	Ahancor , olvidadizo.
Ahumena , bocado.	Aharanza , conversacion.

AI

Aizcolqueta , el trabajar con hacha.	Aizagañetu , barloventear, hacer por ganar el viento.
Aitzurra , aintzurra, azada, azadon.	Aizaldea , aizalboa, barlovento.
Aitzurtu , aintzurtu, cavar.	Aitza , peña, peñasco.
Aitzurlarla , labrador, cavador.	Aitzetac , breñas, peñascos.
Aitzurquinza , agricultura.	Ajutua , capaz, inteligente.
Aizchoria , bahar, halcon.	Aicetorquila , clima.
Aizcolqueta , trabajo de cortar con hacha.	Aidea , pariente.
Aizcora , hacha de cortar.	Aidagoa , cognacion.
Aintzira , balsa.	Aitortu , confesar.

Aitorquidatu, confesar, oír de confesion.

Aitortegula, **aitorcuntegula**, confesionario.

Aitorraraua, confesional, en que se trata de confesion.

Aitorcuntza, **aitorcuna**, **aitorgoa**, confession.

Aitorquidalea, confessor.

Aitorpecoa, confesada, penitente.

AI

Alta, padre.

Aitabichia, padrino.

Aitabigoia, bisabuelo.

Aitaguiarraba, **guinarreba**, suegro.

Aitona, **aitagoya**, abuelo; **aitanagusia**.

Aitaso, abuelo; **aitasaba**.

Aitaquidea, compadre.

Aitaquidaera, **aitaquidagoa**, compadrazgo.

Aitazuna, padrasto.

Aitaponteco, padrino.

Aitatu, mencionar, chistar.

Aitamena, mención.

Aitagurea, Padre nuestro.

Aicea, viento.

Aizatzea, abanicarse.

Aicequiña, **alceguillea**, **alce-emallea**, abanico.

Aizatu, hacer, dar, tomar aire, aventar.

Aicequin andia, abano.

Ajutua, capaz, hábil, diestro.

Aitu, acabar, agotar.

Aitzina, acatamiento, presencia, delantera.

Aitzaquia, excusa, pretexto.

Aitzaquiatsu, achacar, levantar alguna falsedad, acumular.

Ajola, cuidado, pena.

Ajolacabetu.

Ajolacabea, descuidado, sin pena, sin vergüenza, acidia, pereza, perezoso.

Aitzindaria, guía, adalid, capitán, conductor.

Aitzinat, adelante.

Aitzinatu, **aitzindu**, adelantar, anteceder, preceder.

Aicea, viento.

Aicea, aire, elemento.

Aicetu, **aizatu**, **aiceztatu**, airear.

Aindurrina, almaro, maro.

Aingura, **angura**, ancora, ancla.

Ainguratu, **anguratu**, ancorar.

Aingura saria, ancorage.

Ainguerua, **anguerua**, ángel.

Aingueru guardacoa, **aitzindaria**, **zaitzallea**, **beguiralea**, ángel de la guarda.

Aingurutu, hacerse ángel.

Ainguiru, anguila.

Alta Santuaren quidea, antipapa.

AL

Alderagula, **alderagarria** accessible.

Altzairua, acero.

Altzairatu, **altzairuztatu**, acerar.

Altzairuguiña, **altzairugullea**, fabricante de acero.

Altzairuquintza, el oficio de fabricar acero.

Alderatu, **alboratu**, acercarse.

- Alpertasuna**, acidia, pereza.
Alperqueria, idem.
Alaia, alentado, animoso; **alaitu**.
Alaibaguetu, desalentar, desanimar, acobardar.
Alcarra, adjetivo, compañero, el que se junta a otro.
Alcartu, adjetivar, juntar, acompañarse, avenirse, unir.
Alcarreza, adversario, enemigo.
Alafede, a fe.
Alabatu, alabar, elogiar.
Alabarda, alabarda.
Alabastroa, alabastro.
Alabea, paleta curva del rodezno, alabe.
Alaga, alaguea, alaga, especie de trigo.
Alaja, alajea, alaja.
Alamarac, alamares.
Alambrea, alambre.
Alaraca, gritos, alaraca.
Albardan, alperdana, albardan.
Alberdania, albardania.
Alferra, alperra, ocioso, holgazán.
Albendia, albendá, colgadura de lienzo a modo de red, albenda, orilla.
Albendaquiña, albendagullea, texedora de albendas.
Alboguea, albogue, albogón.
Albocaria, alboqueroa, alboguero.
Albondiguea, albondiga, albondiguilla.
Alborada, alborada.
Albornia, ajofaina, albornia.
Alboraquia, agasaño de gratitud, alboroque.
Albiste, albiriste, albricias.
Albiste saria, regalo de albricias.
Alcabala, idem.
Alcatea, alcalde.
Alcancea, alcantzatu, alcance, alcanzar.
- Alcandora**, camisa de hombre.
Alcarabea, alcaravea, planta.
Alcarraza, jarrito de barro no vidriado, alcarraza.
Aleatu, alear, fundir plata u oro de diferentes leyes.
Alegueratu, alegrar, regocijar.
Alegueria, alegría.
Alaitu, alentar, animar.
Alala, alentado, animoso, despejado, brioso.
Alaitia, idem.
Alerta, alerta, con vigilancia.
Alfereria, idem.
Alfereza, alferez.
Alporcha, alforja.
Aloza, alforza.
Algará, grande carcajada.
Algarabia, idem.
Algararia, algarero.
Allorbea, alholba, hierba.
Aledisti-chea, aljofar.
Aledistatu, aljofarar.
Almendra verdea, alloza, arzolla.
Almea, almea, corteza del árbol es toraque.
Almena, almenea, almena.
Almendra, almendrea, almendra.
Almejia, almexia, vestido delicado antiguo de señoras.
Almidoya, almidon.
Almidoitu, almidonar.
Almoneda, idem.
Alpiste, alpiste, semilla.
Alqui estalquia, alquí gaña, alquicel, cubierta de banco.
Alquillatu, alquilar.
Alocatu, alogueratu, alocairatu, alquilar, asalariar.
Alquillera, aloguera, alocaira, alquiler, arrendamiento, conduccion.
Aldarea, altarea, altar; **nagusia**, altar mayor.
Aldacorra, mudable, alterable.

Aldandea, **aldandetu**, alteracion, alternar.
Aldiaquera, alteracion, vicisitud.
Aldizca, **aldiaica**, alternadamente, a veces.

Aldizcatu, **aldiacatu**, alternar.
Altza, aliso; **altzaga**, alisal, arbol.
Altzaera, **altzadura**, **alzadura**.

AL

Alzapremia, **alzaprima**, palanca.
Alzapremiatu, **alzaprimar**.
Altzatu, **alchatu**, **alzar**, **levantar**, **elevar**.
Ala biz, **ala dela**, amen, assi sea.
Aldamioa, **andamio**, **añadidura**.
Alasea, **aparador**.
Alasala, **cuenda**.
Alde eguin, **apartarse**.
Alde eraguin, **apartar**.
Alpetu, **ahalpetu**, **apoderarse**, **hacer suya** una cosa.
Alpea, **ahalpea**, **poderio**, **dominio**, **jurisdiccion**.
Alpeduna, **ahalpeduna**, **apoderado**, el que tiene **poderes** de otro.
Alcabuza, **alcabuzatu**, **arcabuz**, **arcabucear**.
Alchatu, **levantar**, **-se**, **asobarcar**.
Alsarquia, **assadura** de animal, **menudillos**.
Ala, **alan**, **alatan**, **assi**, de aquella **suerte**.
Ala ere, **alambere**, **aun** **assi**.
Alaber, **ademas** de esso, **tambien**.
Alperra, **ocioso**, **enemigo** del trabajo.

Alpertu, **hacerse** ocioso.
Alper, **alperric**, en balde, sin fruto.
Alquia, **aulquia**, banca, banco.
Alquigaña, **bancal**, **cubierta**.
Ala, **barca plana**, **ancha**, **gabarra**.
Alara, **cacareo**.
Alaratu, **cacarear**.
Aldaroa, **calandrajo**, **pedazo** desgarrado del vestido y sus **bolsas** y **desigualdades**.
Alacoztu, **alacotu**, **alangotu**, **calificar**.
Alacozte, **alangotzea**, **calificacion**.
Alacoztaria, **alangotzallea**, **calificador**.
Alcandora, **camisa** de hombre.
Alorra, **heredad**, **sembrado**.
Altsarquea, **icus**. **cherria**.
Alde aldean, **casi** **casi**.
Aldea, lo que esta **cerca**, **vecino**.
Aldean, **cerca**, en la **vecindad**.
Aldamena, **lado**, **costado**.
Aldarte, **alderdi**, **lado**, **quarto**, **parte** del cuerpo.
Alboa, **cercania**, **vecindad**.

AL

Alboco miña, **aldeco miña**, **dolor** de costado.
Aldecoya, **circunstancia**, **circunstan-**
te.
Aldecoitu, **circunstanciar**.

Aldecoa, **cercano**, **vecino**, **circuns-**
tante.
Aldequidecoa, **alboquidecoa**, **colate-**
ral.
Aldiria, **comarca**, **confin**.

- Aldimaitza**, comission, poder.
Aldimaitzaduna, comisionista.
Alaiquida, confortacion.
Alaiquidatu, confortar.
Al, poder; **al det**, **al dezu**, puedo, puedes.
Alez, **aleguiñez**, en cuanto se pueda.
Altuna, **alduna**, poderoso, potente.
Alcarquida, **icus**. **elcarquida**.
Aldequidea, **alboquidea**, convecino.
Aldondea, conversion de pecadores.

AM

- Ama**, madre.
Amabi, doce.
Amabizcoa, docena.
Amabigarrena, duodecimo.
Amabicoa, cosa de doce.
Amabicatu, adocenas.
Amabichia, madrina.
Amaizuna, madrastra.
Amabigola, bisabuella.
Amabiac, las doce.
Amaidiña madrina.
Amaquidea, comadre.
Amaponteco, madrina.
Amaguiarraba, **guñarreba**, suegra.
Amagoya, abuela.
Amaso, **amso**, aguela.
Amanagusia, abuela.
Amona, abuela; **amonabia**, bisabuela.
Amasaba, abuela.
Amar, diez.
Amarra, **amárra**, cangrejo; **amarra-tza**, idem.
Amarduna, decima.
Amarginarrena, décimo, -a.
Amarrecoa, cosa de diez.
Amarrena, diezmo.
Amarrengo, del diezmo.
- Amarrac**, las diez.
Amaica, **amaeca**, once.
Amalru, trece.
Amalau, **amalaur**, catorce.
Amabost, **amabortz**, quince.
Amasel, diez y seis.
Amazazpi, diez y siete.
Amatu, amar, querer.
Amodio, **amorioa**, amor.
Amandatu, **amandu**, acabar.
Amandá, acabamiento, fin, postre.
Amabicatú, **icus**. **hamabi**.
Amiñudea, ama, que cria.
Amagarria, amable.
Amañoa, amaños.
Amarratu, amarrar.
Amarrac, amarras.
Amaraci, amartelar, enamorar.
Amarazlea, **amararia**, amartelado.
Ambrolla, ambrolla.
Amodioa, **amorioa**, **amorea**, amor.
Amiruna, almidón.
Amirundu, almidonar.
Amireza, almirez.
Amizclea, almizcle.
Amesnaria, amesnador, el que guarda a otro el sueño.

- Amutsua, amutsuro**, amoroso, amorosamente.
Ampara, amparoa, amparo.
Amparatu, amparar, resguardar, apadrinar.
Ampolla, ampolla, de vidrio, etc.
Ampulua, gota, grano crecido y redondo.
Amua, anzuelo.
Amodio gaindroquia, amor apreciativo.
Amarrua, astucia.
Amarrutsua, astuto.
Amarruztatu, hacerse astuto.
Ampulua, burbuja, campanilla de agua, redondo, crecido.
Ambatea, cantidad, número, cuenta.
- Ametza**, carvallo, quexigo, especie de roble.
Amezaga, amezqueta, carvallar, quexigal.
Amucoa, cerro para hilar, lino suave preparado.
Ambaquidatu, connumerar.
Ambatetu, contar, numerar.
Ambategula, contaduría, oficina.
Ambaquintza, contaduría, oficio.
Ambatquida, contribución.
Ambatquidatu, contribuir.
Ambatquidea, contribuyente.
Amarteia, década, decena.
Amultsua, amoroso, delicioso.
Amildu, derrocar, echar rodando precipitar.

AN- AP

- An**, anche, allí, allí mismo.
Andic, andi, andican, de allí.
Andá, literilla, corredor.
Anda adi, levántate.
Andia, aundia, grande, crecido.
Anditu, aunditu, engrandecer, crecer.
Andiquiac, los grandes.
Anditasuna, grandeza, corpulencia.
Anditsua, divieso, hinchazón.
Anderea, anyerea, dama, muñecas de niña.
Anderetu, anyeretu, hacerse dama, linda, delicada.
Anderequetan, anyerequetan ibilli, hacer muñecas.
Anyerequeria, melindre, esguinze.
Andrea, anrea, señora, mujer; **ez andrea, bai andrea**, no señora, si señora.
Andretu, anretu, hacerse señora, mujer.
- Anrezalea**, lujurioso.
Anrequetan ibilli, andar perdido en deshonestidades.
Apirilla, Abril.
Anditsu zornatua, zolditua, absceso, tumor apostemado.
Andiago, maior, más crecido.
Andiagotu, aumentar, avultar.
Apaizlaguna, acolyto.
Anditu, acrecentar, engrandecer, aumentar.
Andigoa, acrecentamiento, bulto, etcétera.
Anderetu, anyeretu, adamarse, ponerse pulida, hermosa, como dama, afiligranada.
Anderequeta, anyerequeta, adamamiento.
Apaindu, adornar, engalanar, prenderse, hermohear, alifñar.
Apainqueta, adorno, galanura.
Apaingarria, adorno, adornable.

Ansiá, ansia, aflicción, angustia.
Antsiatia, congojoso.
Ansiatu, afligir, angustiar.
Añoa, alheña, roña, sombra, niebla, añublo.
Añoatu, alheñarse el trigo, assombrar, anieblarse.
Anima, arima, alma.
Animatu, animar el alma al cuerpo.
Apaindu, prender, aliar, componer, hermosear.
Apaindea, **apaintzea** alioño, adorno.
Anoduna, porcionista, alumno.
Aña, ama, que cria.
Apamá, idem.
Antusia, ambición.
Andigura, **andinaya**, ambición.
Anitz, muchos.
Anitzetan, a menudo, muchas veces.
Andreguisa, a-mujeriegas, como mujer.
Apalá, anaquel, aparador.
Anascotea, anascote.
Anca, anca.
Anciñatasuna, **anciñatera**, **anciñadina**, ancianidad.
Anciñacoa, **adinandia**, **adintsua**, anciano, antiguo.
Anchina, lo mismo.

Anciñacoac, **anchinacoac**, antepasados.
Aozbildua, abocardado.
Adinanditu, hacerse anciano, -a.
Adintsutu, lo mismo.
Ancona, ancón, enseada para navíos.
Andana, andana.
Andac, andas.
Anda, **andena**, andén.
Andráminac, **androminas**, excusas frívolas.
Andurrialac, **andurriales**, lugares apartados y sucios.
Angarillac, **angarillas**.
Angará, angra, enseada.
Angurria, **angurria**, badea, sandía.
Angustia, angustia.
Animalia, animal.
Animea, anima.
Animoa, ánimo, esfuerzo.
Antzarra, ansar.
Anciñaqueta, antigualla.
Anciñatua, **anchinatua**, antiquado.
Anciñarla, **anciñazalea**, antiquario.
Añagaza, señuelo para engañar las aves, añagaza.
Añusca, tragadera.
Añuscatu, añusgar, atragantarse.
Antzundea, **anzoera**, comparación, cotejo, aplicación.

AU

Aurquea, **aurca**, aspecto, presencia, delantera.
Aurqueratu, presentar, abocar.
Aurquez aurque, cara a cara.
Aurquetu, **aurcatu**, abocarse, carearse.
Aucijarraya, abogado.

Aundia, **icus**, **andia**.
Ausaz, **ausa**, **aujaz**, acaso, por ventura, puede ser que, parece que.
Aurrea, **acatamiento**, presencia, delantera.
Aurdicochoa, **almoadica**, **acerico**.
Aurrera, adelante.

- Aúrra**, aimbat.
Aurreratu, **aurratu**, adelantar, anteceder.
Aurrena, adelantado, delantero, primero, principal.
Auricha, aguinaldo, estrenas.
Autaquíña, alvedrio, voluntad libre.
Austoncia, lo mismo que,
Auspuruua, aljofifa, andrajo, trapo viejo, cernadero.
Auspuruaz igortzi, aljofifar.
Aurra, **ahaurra**, niño, -ña.
Aurtu, anifiarse.
Aurreizana, antecesor.
Aurten, este año presente, ogaño.
Audiandea, aparato, ostentación, pompa.
Auzcora, **aucoz**, boca arriba.
Auzpez, boca abajo, debruces.
Aozpez, idem.
- Aurdiqi**, **aurtiquitu**, arrojar.
Aurpeguia, cara, aspecto, presencia.
Ausarta, atrevido, denodado.
Ausartatu, atreverse.
Ausarcia, atrevimiento, denuedo.
Aüena, aullido, **icus. auhendu**.
Aüendu, aullar.
Averia, gasto, pérdida.
Averiatu, padecer averia.
Aurzaya, ayo, aya.
Auzalana, ayuda de vecinos, concurrencia dellos a algún trabajo.
Audicatu, bizarrear, hacer ostentación, vanidad.
Auciabartza, brega, pendencia, riña.
Auciabartzatu, bregar.
Auntza, cabra; **aunzquia**, muerta.
Aumia, cabrito, -a.
Aunotu, cansar, -se mucho.
Aunoa, cansado assi.

AQ

- Aquerra**, cabron, y palo que detiene el cabrio.
Aquerguisacoa, acabronado.
Aquer adarduna, cabrón cornudo.
Aquirina, cabrón castrado.
- Aquercaira**, cabronada.
Aquelarguia, capricornio.
Aquelar, donde se juntan las brujas.
Aquetza, ciclón.

AY

- Ayenganatu**, **aenganatu**, adherir, llegarse a ellos, apuntarlos.
Aztiatu, adivinar, agorar.
Aztia, **aztina**, adivino, agorero.
Aztinanza, adivinación.
Azolioac, verzas de aceite.
Ay ene!, **ay niri!**, ay de mi.
- Ay hiri**, **ay zuri!**, ay de ti.
Ayoa, ayo, aya,
Ayena, sarmiento, bara, cepa de vid.
Ayornatzea, citación del juez.
Ayenmentua, codadura de vid.
Ayoza, cuchilla.

AR

- Ará**, **alla**, **velalí**.
Araba, **arauba**, conformidad, hermandad.
- Arabarra**, **Alabés**.
Aragüa, carne.
Aracaya, carne para cecinar.

Aracaitu, hacer cecina.
 Arategula, carniceria.
 Araquiña, carnicero.
 Aratepallea, cortador.
 Aroa, temple, sazón.
 Arotu, templar, sazonar.
 Arraya, arraña, arraina, pescado, pez.
 Arraiquiña, arralepallea, pescaderas, que cortan y venden pescado.
 Arrandeguiá, abaceria, pescaderia.
 Arraya, aurpequi arraya, semblante apacible.
 Arrayac eguin, chazar.
 Arraya, una ave, raya.
 Arrayaguillea, chazador.
 Arra, arra, palmo.
 Arrá, gusano.
 Arra, varón, macho.
 Arrás, cerca, junto.

Arragoa, horno, fragua grande para quemar la vena de fierro.
 Artu, arreztatu, arrac jo, agusanarse.
 Ar, artu, tomar, recibir.
 Arratsa, noche.
 Arratsaldea, la tarde.
 Arrasteguiá, la tarde.
 Arrasgorria, arreboles del anoche-
 cer.
 Arrastoa, rastro, señal.
 Arrastatu, arrastrar.
 Arrastaca, arrastrando.
 Arrea, color pardo.
 Arrea, area, arado plano de muchos dientes.
 Araona, harauna, balanza.
 Aratu, ir alla, registrar.
 Arroa, esponjado, hueco.
 Arrotu, esponjar, ahuecar, crespas.

AR

Arrotu, sacudir, carmenar.
 Arroza, arrozna, arroz.
 Arrozzatu, helar la bebida.
 Arrotza, huesped, estraño.
 Arotza, carpintero, oficial principal de Herrería, aroza.
 Arotzla, carpintería, y aquel oficio de Herrería.
 Aroztegui, taller de carpinteros.
 Arozquintza, lo mismo que arotzla.
 Arozz, arunz, acia alla.
 Arozzago, mas acia alla.
 Area, arena, icus. arrea.
 Arcoisca, arcoiscoa, pedrezuela.
 Arcaltzac, peñascos terribles, ber-
 rruecos.
 Arcaltzegula, berrocal; arcaltzunea,
 idem.

Arria, piedra.
 Arri bicla, eco, donde se hace.
 Arrilandua, arlanda, piedra labrada.
 Arlandu, labrar piedra.
 Artistea, piedra preciosa.
 Arrobia, cantera.
 Arlá, carnero.
 Arriquia, carnero muerto y comes
 tible.
 Ardia, oveja, pulga.
 Ardiquia, oveja muerta.
 Arditá, ochabo.
 Arcumea, cordero.
 Arlantza, oficio de labrar piedra.
 Artecoa, arartecoa, abogado, media-
 nero, patrocinador.
 Arraiztu, abrazar.
 Arraizta, abrazo.

Arpoyac, abrazaderas de piedras.
Arritu, absortar, pasmar, admirar.
Aronz, arunz, acia alla.
Aronzago, mas acia alla.
Aronzagotu, hacerse mas acia alla.
Arrezquero, **arrezqueroztic**, **arrez-**
querotanlc, despues aca.
Araguiz biltzea, acceso, acto carnal.

Aracaya, arcaya, cecina.
Aracaitu, **aracaitu**, acecinar.
Artu, acetar, tomar, recibir, agusanarse.
Arguitu, aclarar, alumbrar, resplan-decer; **argui eguin**.
Araldea, acompañamiento grande, comitiva.

AR

Artzecoduna, **artzeduna**, acreedor.
Artzeatu, **artzetu**, acribar; **artzea**,
 criba.
Arganatu, **arenganatu**, adherir, lle-garse a otro, apuntar a él.
Arrigarria, admirable, espantable.
Arritzea, admiración.
Arratza, tambor, timbal, atabal.
Arrazcoa, adufe, pandero.
Arerioa, adversario, enemigo, anta-
 gonista.
Arretatu, advertir, reparar, obser-
 var.
Arthatu, **aimbat**.
Arreta, **arta**, advertencia, reparo,
 cuidado.
Arretabaguea, **artagabea**, inadverti-
 do, descuidado, torpe.
Arraiguera, afabilidad, apacibilidad.
Arraya, afable; **arraitsu**, idem.
Arraiquiro, afablemente, apacible-
 mente.
Arraitu, hacerse afable, apacible.
Arrapatu, agarrar, prender.
Arña, **arina**, agil, leve, ligero.
Arindu, hacerse agil, leve, ligero.
Arintasuna, agilidad, ligereza, leve-
 dad.
Arranoa, aguila.
Arrano campisa, aguilucho, aguila
 bastarda.

Arri-orratza, aguja, obelisco, pirá-
 mide.
Arreztatu, agusanarse.
Ardundu, lo mismo.
Arabartu, lo mismo.
Arduna, **arratia**, **arrestatua**, **arabar-**
tua, agusanado.
Ardaztua, ahusado.
Ardore, **ona**, **gaistoa**, semblante, ta-
 lante, bueno, malo.
Arautia, **arautsua**, **araucoa**, ajusta-
 do, conforme a la razón.
Armarioa, armario, alacena.
Arabloa, alacrán y cualquier ani-
 malillo ponzoñoso.
Aribeguiac, alamares.
Arambre, alambre.
Artatsa, **arguiaren beguia**, alba de
 la mañana.
Arbilgueta, albondiguilla.
Arazoa, embarazo, bulla, alboroto,
 tumulto, motin; **arazotu**, etc.
Ardietsi, **icus**. **erdietsi**.
Artelatza, alcornoque, corcho.
Arbea, aleve, traidor, disimulado.
Arbotalea, algarrada, catapulta, má-
 quina de disparar piedras.
Aricateac, alicates.
Arima, **arimea**, alma.
Arresla, vallado de huerta, alma-
 ceria.

Ardoa, arnoa, ardaua, vino.
Ardo gorria, aloque, vino rubio.
Argulustea, ilusión, engaño, alumbra-
 miento.
Arcantoina, piedra angular.
Arimatu, animar al cuerpo el alma.
Arratsa, noche; **arrastu**, anochecer.
Aratusteac, carnestolendas, antruejo
Arguizucia, antorcha.
Arricatu, apedrear.
Arrica, a pedradas.
Arretaria, apuntador de los que fal-
 tan y de comediantes.
Arc, **arrec**, **archec**, **arrechec**, aquel,
 aquella.
Araco, aquel que; **araco arc**, aquel
 que está allí.
Artecaicea, norte, cierzo, Aquilón,
 brisa.
Artealcetarra, aquilonar, septen-
 trional.

Area, **arrea**, un arado plano y qua-
 drado con muchos dientes, para
 quitar broza e igualar la tierra
 arada.
Armiarra, araña.
Argui armiarra, araña de luces.
Atzirria, arañ, rasguño.
Arbola, árbol.
Arecha, árbol, viga, roble.
Arroa, esponjado, hueco, hinchado,
 soberbio.
Arroa en el árbol, dañado, **arrac joa**.
Arrotu, esponjar, ahuecar, carme-
 nar.
Arrotasuna, arrogancia.
Arbotaria, arbotante.
Arcá, arquetón grande, arcaz.
Archa, **archea**, harpón.
Archaria, archivo.
Arrezpalmpa, arquitrabe.
Arrutzaya, arco en la Arquitectura.

AS-ATS

Asnasea, aliento, respiración.
Ats, respiración, aliento.
Ats eman, **atsedatu**, abahar, alen-
 tar, aspirar.
Atseden, apagar.
Astindua, blando, fofo.
Ascatu, desatar, absolver, librar.
Ascaturá, desatamiento, absolución
Ascatua, absoluto, independiente.
Astoa, borrico, pollino, asno, fiador.
Astaqueria, borricada.
Astotu, aburrirse, hacerse fiador.
Asmatu, acertar, adivinar, atinar.
Asmoa, acierto, pensamiento, adivi-
 nación.
Asnasca egon, acezar.
Asnase nequeza, acezo.
Asca, **arnasca egon**, acezar.

Atsedentegua, **atsedencaya**, acogi-
 da, refugio, asilo.
Aslencgula, acústico.
Atsecabetu, afligir.
Atsecabea, aflicción, desdicha.
Astundu, **astun eguin**, agravar, ha-
 cer pesado.
Astungarri, agravante.
Asta zafraya, alazor, azafrán sal-
 vaje.
Asta tipula, cebolla, albarrana.
